

## Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA: SUSTRAI COLINA  
ARGAZKIAK: GAIZKA IROZ

Donibane Lohizune-Ziburu (Lapurdi)

## Denboraren zubian

Pasabidetzat ditugu zubiak, bi hari mutur soltek egindako korapilotzat. Korapiloek, alta, hari muturrak laburtzen dituzte, lotura gunean krika-krakak sortu, etenak lotu, eta loturak eten. Guk lotailutzat dugun zubia, mugatzat zuten behinolako donibandar eta ziburutarrek. Nola bilduko zituen gizakiak itsasoak postaletarako ere nekez elkartzen zituen bi herri? Denborari esker. Denbora ere zubi bilakatzen baita muga izateari uzten dionean.

Ziburuko plazan gaude. Pilotari burutsuentzako frontoiak, terraza eta guztiko taberna pareak, eta merkatu egunetan postuz eta jendez gainez egiten duen karrika-zuloak osatzen dute karratu magikoa. Herriko lehen eliza izan zen Bordagaineko Torrearen oinetan pausatua, egungo ezkila-dorre oktogonaldu Bixintxo elizatik bi oinetara, herri txikietako plazek ezinbestekoa

duen bilgune funtzioa egoki betetzen du Ziburukoak.

Bilgunetik ihesi, kresal usaina lagun, porturantz abiatu gara. "Ditxo baita" bataiatu zuten herriko-etxe aitzinetik pasa, Maurice Ravel-en sortetxea izan zen Estebaniari bizkarra eman, eta gotor bezain zut dirauen itsas-argiarekin egin dugu topo. Andre Pavlovski-k estilo neolapurtarrean eraikia, zubiz

gaindi, elkartzen ditu Donibane eta Ziburuko arrantzaleak.

Zibururi agur esan eta Donibanerako zubia zeharkatzen ari garela frogatu dugu arrantza ez dela museoetara kondenatutako jarduera. Portura sartu nahian dabilzan ontzien sirenak, deskargatzen ari diren arrain kaxa izoztuak, prezioak negoziatzen dabilzan marrazoak, bazkaritarako txitxarroa eroatera

Ilunabar ederra Donibaneko hondartza albotik ikusita.





Ezkerrean, Maria Teresa infantaren etxea (Donibanen), egun udatiarrentzako museo bihurtua. 1660an Luis XIV.a erregearekin ezkondu zen infanta, Donibanen bertan. Eskuineko argazkian, Maurice Ravel musikagilearen jaiotetxea, Ziburun. 1928an *Boleroa* eman zuten jendaurrean lehen aldiz. Emakume batek, obra entzutean, "ero" deitu omen zion Raveli, eta hark bere anaiari esan: "Hara, emakume horrek ulertu egin du".



hurbildu den amona... Bizilekuak eta leku biziak dira portuak.

Ziburun zubi gainetik ikusi duguna, bertatik bertara behatu dugu Donibane Lohizunen. Geroz eta arrain gutxiago omen dago, prezioak geroz eta desegokiagoak, gaurkoak ez omen dauka orain urte gutxiokarekin zerikusirik. Denak ez direla parez pare dagoen Infantaren etxea bezala kontserbatzen pentsatu dugu gure kautan. 1660an Luis XIV.aren ezkondu zen Maria Teresa infantaren bizitokia izan zena udatiarrentzako museo da egun, hortik gertu dagoen argizarizko panpinez osatutako Grevin museo bezalaxe.

### Itsasoa, begien gozamen

Museoen itzulginguruak egin eta hondartzako malekoia agertu zaigu aurrez aurre. Garai bateko arrantza-leen etxe txikiak kontrastea egiten dute Artako badiak zabaltzen duen handitasunarekin. Ederra da parajea ilunabar oskorrietan. Ederragoa bere gogorrean galerna-arratsetan.

Ez galerna, ez ilunabar, tipi-tapa jarraitu dugu aurrera, talasoterapia eta

Grand Hotel famatuen paretik pasaz, eta malekoi luzeko ibilaldia Santa Barbaran bururatuz. Bertatik ikus daitekeenak ez du preziorik. Egun oskarbiek Landetako hondartzez harago dagoen munduaren amaierara eramango dizkizute begiak. Bestaldera, Donibane eta haren inguruak perspektibaz preziatzeko toki pribilegiatua dira. Eta hori dena surflariak olatu gainean dantzan ari diren bitartean egin badaiteke...

### Gambetta karrika

Ez da hori, ordea, Donibanek eskaintzen digun azken zeregina. Lehen atzean utzitako Grand Hotel pareraino bihurtu, eta hondartza itsasoari utziz, herrigunean murgildu gara. Mugimendu dextenteko herri koxkorra baita Donibane. Ez biztanle kopuruarengatik ala autoa uzteko dauden zailtasunengatik, Gambetta oinezkoentzako karrika zentrikoaren jarioarengatik baizik.

Bertan murgildu gara aldapa behera. Jantzi marka ospetsuenen erakusleihoak, beti-betiko harakinaren urdaiazpiko

sonatuak, mundua jaio denetik hor datzan zapata denda, jendea gora eta behera... Argazki esanguratsu asko atera daitezke Gambettako harbideetan. Ez da kasualitatea, San Juan Batis-ta eliza etorbidearen erdi-erdian kokatua egotea. Ikusgarria da kanpotik, ikusgarriagoa barrutik. Bertan ezkondu zen Luis XIV.a, segur aski Frantziak izan duen errege ospetsuena.

### Anaiak, baina desberdinak

Luis XIV.ak eroan gaitu eliza utzi eta bere izena daraman herriko plaza nagusira. Han daude "eguzki erregea" bizi izan zen etxea, udaletxea, kiosko bitxia eta terrazak mordoxka.

Horieta batean eseri gara Zibururi so. Anaia aristokrata eta herrikoien kondaira etorri zaigu burura. Pirata eta kortsarioarena. Orduan ulertu dugu zergatik zuten mugatzat gure lotailutzat dugun zubia. Orduan oroitu gara denbora ere zubi bilakatzeko dela muga izateari uzten diotenean. Baina zer da denbora lotu ahala eteten den korapiloa ez bada? Pasabidea, agian. ■

**Artezblai ARGITALETXEAREN AZKEN ARGITALPENAK**

FTI - Antzerkiola Imaginarioaren liburuak  
 8 Olivetti poetiko - Mundopolski, erreboltaren ziaboga  
 Yuri Sam. Otoitza - Au Revoir triunfadoreak

Yorick Liburudendan edo  
[www.libreriayorick.com](http://www.libreriayorick.com) eskura ditzakezu

San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbao / Tel: 944 795 287 / [www.libreriayorick.com](http://www.libreriayorick.com) / [info@libreriayorick.com](mailto:info@libreriayorick.com)

2008ko apirilaren 20a

**ARGIA**